

**2022KO EKAINAREN 28AN EGINDAKO
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Gorka Murua Macuso

Zinegotziak

Noelia Lataburu Ortiz
Mikel Iturbe Saizar
Olaia Nieto Legarra
Leticia Aristi Oria
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga
Jose Ramón Epelde Irizar
María Cristina Santos San Sebastian
Marta Castrillo Iturralde

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2022ko ekainaren 28an arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari irekia izango da, eta edozein herritarrek bere eskura izango ditu bileraren akta eta audio grabazio argitaratu ondoren eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

*2022-05-31ko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2022KO MAIATZAREN 25ETIK 2022KO EKAINAREN 20RA (2022/136 - 2022/161).

Alkatetzak 2022ko maiatzaren 25etik 2022ko ekainaren 20ra bitartean (2022/136-2022/161) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2023. URTERAKO HERRIKO JAI EGUNA IZENDATZEA.

Alkateak adierazi du, urtero moduan, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak 2023. Urterako tokiko jai baten proposamena adierazteko eskatzen dela eta Iruran, urtero moduan Irailak 29, San Migel eguna izendatzen dela.

Era berean, Gipuzkoako udalerrri guztietan aplikatuko den tokiko jai uztailaren 31 izango da, Loiolako San Inazio eguna.

Zinegotzi guztiek adostasuna azaldu dute.

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

4.- EH BILDU ETA EAJ-K ADOSTUTAKO MOZIOA: LGTB+ BIZITZEK BALIO DUTE.

Noelia zinegotziak hartu du hitza, eta adierazpena irakurri du:

“LGTB+ BIZITZEK BALIO DUTE

Maiatzaren 17an, LGBT+fobiaren kontrako egunean esaten genuena errepikatzen dugu Ekainaren 28an, LGBT+ harrotasunaren egunean. Harro gaudelako gure bizitzez, harro gure bizi historiaz, harro LGBT+ mugimenduaz.

Komunikabide nagusien estigmatizazio saiakerek eta manipulazioak zein eskuin muturreko diskurtsoek cis-hetero arautik ateratzen diren bizitzak ezabatu nahi dituen honetan, inoiz baina garrantzitsuagoa da nondik gatozen ospatzea eta aldarrikatzea. Stonewalletik Euskal Herrira, milaka bizipen, galera, aldarrikapen eta lorpen izan ditugu, baina oraindik egiteko asko dago. Eraso LGBT+fobikoen datuak gora doaz, armairuak presente jarraitzen du gure bizitzako arlo guztietan, diskurtso patologizatzaileak ugaritzen ari dira... eta ondorioz gure bizitzak arriskuan daude.

Pandemiaren eraginez azken bi urteak benetan latzak izan dira herritar guztientzat, are gehiago LGTBI kolektiboarentzat, gehien kolpatu dutenetako bat izan baita. Izan ere, desberdintasunaren arrakala areagotu egin da eta kalteberatasun egoerak eremu askotan indartu dira, sare sozialetan esate baterako. Aurten ere sexu eta genero aniztasunarekiko gorrotoak eragindako erasoak salatzeke ahotsa altxatzen dugu LGTBI kolektiboaren aurkako aurreiritzi ugari munduko eskualde askotan indarrean jarraitzen du eta.

Beharrezkoa da gure gizartean oraindik indarrean dauden diskriminazioen aurkako borroka sendotzen jarraitzea, askotan ikusezin bihurtzen diren genero-identitate-orientazio eta adierazpen guztiak errespetatuak izan daitezen. Gizarte osoaren erantzukizuna da diskriminazio eta indarkeria mota guztien aurka borrokatzen jarraitzea.

Honen guztiaren aurrean, antolatzea eta borrokatzea ezinbestekoa dugu. Gure kasuan, instituzioetatik politika publiko integral eta sendoak, perspektiba feministan oinarritutako zerbitzuak, babes kolektiborako eta autodefentsarako mekanismoak ezartzeko bideak... ezartzea ezinbestekoa dugu. Anekdotikoak diren politikak alde batera utzi, eta estrukturalak diren horiek erdigunean jartzeko garaia da.

Horregatik guztiagatik udalean konpromisoa hartzen dugu, gure herriko LGBT+ pertsonen bizitzen gaineko diagnostikoa egin, eta honetan oinarritutako ekintza plan integral bat abiatzeko. Prozesu hau, herriko LGBT+ mugimenduko kideekin batera egiteko konpromisoa hartzen dugu eta egon ezean, erreferente eta norbanako ezberdinak aktibatze modua sustatuko dugu.

Honetaz gain, dei egiten dugu Ekainaren 28aren bueltan antolatu diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeko, eta amaitzeko, LGBT+ pertsonen bizitzak egunerokotasunean bizigarriak izateko, lan eta borrokatzen ari diren kide eta kolektibo guztiak zoriondu nahi ditugu, harrotzeko moduko mugimendua osatzen dugulako. Gure bizitzek balio dutelako, gora Ekainaren 28a!

IRURAKO UDALEAN, 2022ko ekainaren 28an.”

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

5.- GALDE-ERREGUAK.

Ez dago.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:5etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.